

7 ZKI.**UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.****I- XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua.-**

Erakunde lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo probetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau erakunde lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II- ZERGAGAIA**3. artikulua.-**

1. Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren probetxamendu bereziak eratzen du zergagaia.
2. Zerga-gaia da herri onurakoak diren edo auzolagunen zati handi bati eragiten dioten hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzaileek udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo helgaduran erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu berezia egitea. Horretarako, honakoak hartuko dira hornidura-zerbitzuen enpresa ustiatzailetzat:
 - a) Argindarra, ura edo gasa hornitzen duten enpresak.
 - b) Jendearentzako telekomunikazio zerbitzuak ematen dituzten enpresak, baldin eta udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo helgaduran erabilera privativos edo aprobetxamendu verséis instalatutako telekomunikazioko sare publikoak, Osorio edo zati batean, erabiltzen badira.
 - c) Hornidura-zerbitzuak ematen dituen beste edozein enpresa, baldin eta horiek emateko udal lurzoru, helgadura edo zorupea hartzen duten hodiak, kableak eta gainerako instalazioak erabiltzen badituzte.
3. Artikulu honetan jasotakoaren ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa uztiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

III- SUBJEKTU PASIBOA**4. artikulua.-**

- 1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.
- 2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzekoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- 3.- Estatua, autonomia elkarteak eta entitate lokalak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen probetxamenduetan eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia duten guztietan.

5. artikulua.-

Tasen ordainketa lizentziak beren izenean jasotzen dituztenek egingo dute, eta horien ezean, probetxamenduaren onuradun direnek.

IV- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

6. artikulua.-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V- OINARRI EZARGARRIA

7. artikulua.-

Oinarri ezargarria udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia gauzatzen den unitate bakoitzak osatzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI- KUOTA

8. artikulua.-

- 1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.
- 2.- Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatzen duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik itzuli beharko ditu berreraikuntza edo konponketa gastuen kostuak, eta haren zenbatekoa aldeztatik aurretik ordaindu.

Kalteak konponezinak badira, udalak kalteordain bat jasoko du. Suntsitutako ondasunen pareko balioa izango du, edo bestela, kaltegutako ondasunen zenbatekoarena.

Entitate Lokalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatzen diren kalteordainak edo diru-itzulketak.

VII- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua.-

- 1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa hurrengo uneetan sortuko da zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke, edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean; jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da izapidatuko dagokion ordainketa egiten ez bada.
- 2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasi edo uzten denean, orde, zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da, eta kuotan dagokion hainbanaketa egingo da Eranskinean ezarritakoari jarraituz.
- 3.- Jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea burutu edo gauzatu gabe geratzen bada subjektu pasiboarekin zer ikusirik ez duten arrazoiengatik, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua.-

Entitate Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX- TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrek ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X- AMAIERAKO XEDAPENA

Honako ordenantza fiskala eta bere eranskina 1998ko urriaren 22an izandako Osoko bilkuran onartua izan zen eta 1999ko urtarilaren batean indarrean sartu zen. Ordenantza hau aplikatu egiten da aldaketan historialean jasotzen diren aldaketekin eta indargabetzea erabakitzen den arte indarrean egongo da.

XI- ALDAKETEN HISTORIALA

Osoko bilkuran onartutako eguna	G.A.O.n argitaratutako zenbakia eta eguna	Indarrean sartu den eguna	Aldatutako artikuluak
1998 URR 22	247- 98 ABE 29	99 URT 1	Hasierako onarpena.
1999 URR 18	247- 99 ABE 28	00 URT 1	Kopuruak.
2000 URR 16	246- 00 ABE 29	01 URT 1	Kopuruak.
2001 URR 15	249- 01 ABE 31	02 URT 1	Kopuruak.
2002 URR 14	247- 02 ABE 31	03 URT 1	Kopuruak.
2003 URR 09	249- 03 ABE 31	04 URT 1	Kopuruak.
2004 URR 13	247- 04 ABE 27	05 URT 1	3. art. eta kopuruak.
2005 URR 10	247- 05 ABE 30	06 URT 1	Kopuruak.
2006 URR 16	247- 06 ABE 30	07 URT 1	Kopuruak.
2007 URR 08	243- 07 ABE 14	08 URT 1	Kopuruak.
2008 URR 13	251- 08 ABE 31	09 URT 1	Kopuruak.
2009 URR 05		10 URT 1	Epigr. A eta E-ren aldaketa eta K epigrafe berria.
2010 URR 07	244- 10 ABE 23	11 URT 1	Kopuruak
2011 URR 10	239- 11 ABE 20	12 URT 1	Kopuruak
2012 URR 22	248- 12 ABE 31	13 URT 1	Kopuruak
2013 URR 21	246- 13 ABE 27	14 URT 1	Kopuruak eta F epigrafea.
2014 URR 20	240- 14 ABE 17	15 URT 1	Kopuruak
2015 URR 22	243- 15 ABE 21	16 URT 1	J epigrafea.
2016 ABE 21	246- 16 ABE 29	17 URT 1	Kopuruak eta J epigraf.kendu

ALKATEA,

IDAZKARIA,

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIA-GATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

ERANSKINA

I.- TARIFAK

Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik exijitzen diren tarifak, jarraian dagoen II zenbakian kaleari egokitutako kategoriaren arabera, probetxamendu mota bakoitzari dagozkionak dira.

ERABILERA MOTA

KALEEN KATEGORIA

1go maila 2. maila

A EPIGRAFEA Udalaren herri erabilerako terrenoen lurrazpia hartzea eta E EPIGRAFEA Linea elektrikoak, hodiak eta galeriak argindar, ur, gas edo bestelako isurkinak garraiatzeko, bai eta lineen zutoinak, kableak, palomilak, amarratze, banaketa eta erregistro kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikorako aparailuak edota kaleetan edo udalaren herri jabariko bestelako terrenoetan ezartzen diren antzeko elementuak.

- Kableak, hoditeriak, tren bideak, indarra banatzeko kutxak eta erregistro edo antzerako m ² /urteko edo zatia.....	22,85 €	22,85 €
- Salmentarako aparailu automatikoak edo diruz dabilzanak, m ² /urteko edo zatia.....	45,60 €	45,60 €

- Udal Bide Publikoen aire, lurrazpi edo lurzoruaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia, hornikuntza zerbitzuen enpresa ustiatzaileen alde.

Bide publikoetako lurzoru, zorupe edo hegalkinaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezien trukeko tasa, auzokideei edo haietako zati bati eragiten dieten hornidura zerbitzuak ustiatzeko enpresen alde, enpresa horiek udalerrian lortzen duten fakturaziotik datozen diru-sarrerara gordinen %1,5 izango da, beste legezko goi-mailako xedapenak agindutakoaren kalterik gabe.

Ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira

Telefonia mugikorrekoko zerbitzuak ez dira tasa kuantifikatzeko erregimen berezi honetan sartuko.

Argindarra banatzen duten enpresen kasuan, udalerrian argindarra saltzeagatik lortutako sarrera gordinak honako kontzeptu hauek osatzen dituzte: potentzia, energia, reaktibako eta ordutegieagatiko diskriminazio osagarriak, neurketa-ekipoen alokairua, hartunerako eskubideak eta engantxeak. Ez dira hor sartzen BEZ eta fidantza bidez lortutako diru-sarrerak, aipatutakoa tentsio altu bajuko hornidura guztientzat ezarriko delarik.

B EPIGRAFEA Zangak, mea zuloak eta sundak irekitzea, bai eta errepedeak, bideak eta gainerako herribideak ere, udalaren herri erabilerako terrenoetan, hodiak, eroanbideak eta bestelako instalazioak jarri eta konpontzeko. Halaber, klean zoladura edo espaloia iraultzea.

- Arekak eta zuloak zabaltzea. Eguneko eta m ² edo bere zatiko gutxiengo zabalera metro 1.....	0,95 €	0,46 €
- Herri lurra baimendukato epean baino luzeagoan oztopatzen denean, esandako prezioak %400ean igoko dira.		

C EPIGRAFEA Udalaren herri erabilerako terrenoak hartzea merkantziak, eraikuntza materialak, obra hondakinak, hesiak, puntelak, asnilak, aldarmioak eta antzeko beste instalazio batzuk jarriaz.

- Edozein eratako lanetan diren heziak m2/egun edo m2 egun zatiak	1,08 €	0,99 €
- Pasabidea uzten duten andamio, zutiko edo zeharretako euskarriak m2/egun edo bere zatiagatik.....	0,51 €	0,46 €
- Pasabideak uzten ez duten andamio, zutiko edo zeharretako euskarriak m2/egun edo bere zatiagatik.....	1,08 €	0,99 €
- Zakarrak eta ondarrak biltzeko kontainerrak, bakoitzeko eta eguneko	6,78 €	6,78 €
- Zakarra, lurra, area, eraiketarako materialea, egurra		

eta abar m2 edo zatiko eta eguneko edo zatiko.....	1,38 €	1,38 €
--	--------	--------

B ETA C EPIGRAFEI DAGOZKIEN SALBUESPEN ETA HOBARIAK

1.- Estatuak, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Mankomunitateak edo udalerrriak osatzen dituen taldeek zuzenean edo administrazioz egindako lanen probetxamenduak, eta Udalak berak egin nahiz kontratatzen dituenak eskubideen ordainketaz salbuetsiak geratuko dira.

2.- Arestian adierazitako salbuespenak, Udal Administrazioak aitortuko ditu, interesatuek hala eskaturik.

3.- %50eko hobaria izango dute: Erdi guneko Historikoaren Birgaitze Egitamua Berezian aurreikusitako eraikinen birgaitze lanak direla eta, Barne Birgaitze Arearen barnean bide publikoa okupatzeagatik kuota likidagarriek.

D EPIGRAFEA Aparkamendu murrizturako ibilgailuen sarrerak kaleko espaloietan eta erreserbetan zehar, ibilgailuen geroalekuak, edozein motatako merkantzien karga eta deskarga.

Berebil finka barruetara oinezko bide edo bereziki gordetako pasabidetik sartzea edo herri bidean aparkaleku gordetzeagatik:

- Garajeetarako izendatutako lokalen urtebeteko:		
Lekua gordetzeagatik kuota fijoak.....	20,66 €	20,66 €
Gordetako leku bakoitzeko gehiagarria.....	8,00 €	8,00 €
- Erabilpen bereziak eraginda lekua gordetzea, metro luze eta eguneko.....	0,82 €	0,82 €

TARIFAK EZARTZEKO ARAUAK

a) Lokal batek pasabide bat baino gehiago balitu, lehenak dagokion epigrafearen arabera ordainduko du tarifa, eta gainontzekoek kuota finkoagatik legokiokeen prezio publikoaren %50eko beherapenarekin (leku erreserba)

b) Instalakuntza, kontserbazio, erreforma, pasabideen kentze eta aparkalekuen erreserba gastuak, eta hauen seinaleztatzea eskatzaileen kontu eta kargura izango dira.

F EPIGRAFEA Udalaren herri erabilera-terrenoak hartzea mahai, aulki, tribuna, ohol-tza eta antzeko beste elementu batzuk erabiliz, irabazi asmoa dagoenean.

- Tabernak eta ostalaritza establezimenduak aulkiak eta mahaiak jartzea: Euroak

Herriko Plaza, Durana Kalea, Mitarte Kalea, Ilargi Plaza 3, Gernika Plaza, Gipuzkoa Plaza eta Araba
Ibilbidea 24 kaleetan:

* Mahaia eta 4 aulkigatik, hilero	5,18	
* Mahaia eta 4 aulkigatik, urtero.....	38,55	

Gainontzeko kaleetan:

* Mahaia eta 4 aulkigatik, hilero	4,56	
* Mahaia eta 4 aulkigatik, urtero.....	34,01	

<u>Erabilera mota</u>	<u>Kaleen kategoria</u>	
	<u>1.maila(€)</u>	<u>2. maila(€)</u>

- Lokal, nahiz establezimendu barnetatik, zuzenean bide publikora edozein artikulu saltzeko lurra aprobetxatzeagatik, hau negozioaren zerbait bezala erabiliz, metro karratuko eta hiruhilabete edo zatiko.....	0,08	0,08
- Esandako puntuetan sartzen ez direnak m2/egun edo bere zatia.....	1,08	0,98

G EPIGRAFEA Kioskoak jartzea kalean.

- Kioskoak, m2/urteko edo bere zatia.....	140,37 €	140,37 €
---	----------	----------

H EPIGRAFEA Postuak, barrakak, saltokiak, ikuskizun guneak, feriak edo jolas lekuak jartzea udalaren herri erabilerako terrenoetan, bai eta kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinemako filmaketa ere.

- Azoka eta herriko jaietako postuak, barrakak, salmenta, espektakulu, jolas edo aisi kasetak, m2ko eta eguneko edo zatiko.....	1,19 €	1,19 €
- Salmenta anbulantea. Metro/luze eta eguneko edo zatiko.....	2,79 €	2,79 €

H TARIFA EZARTZEKO ARAUAK

Astero egiten den azokan salmenta ibiltariko postuek sortutako errezibuen kobrantza, hiruhilabetero edo sei hilabetero egin ahal izango da.

Ferialekuen lurren esleipenerako enkante sistima erabiliko balitz, hau Udalak kasu bakoitzean erabakitzen dituen baldintza eta oinarriei bat etorritik egingo da.

I EPIGRAFEA Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin.

- Erremolkeen aparkatzea (ruolottak, karroak, eta abar)		
Berebileko eta hiru-hilabeteko.....	Ez dago baim.	55,17 €

K EPIGRAFEA Finantza erakundeek edo beste batzuek fatxadetan jartzen dituzten, produktu ezberdinen euskarriekin (kutxazain automatiko, vending, etab....) lortutako aprobetxamendua.

- Instalazio edo jendearen zerbitzurako puntu independente bakoitzeko eta urte edo frakzioko	140,37 €	140,37 €
--	----------	----------

II.- KALEEN SAILKAPENA

Kalea, eta oro har Udalerriko tokiak, ondoren adieraziko diren kategorien arabera sailkatuko dira:

LEHENENGO KATEGORIA.

Otalora Kalea, Herriko Plaza, Durana Kalea, Errekabarren Kalea, Mitarte Kalea, Andramari Auzunea, Araba Ibilbidea, Basabe Bidea, Belorrieta Auzoa, Ilargi Plaza eta Iralabarri Plaza.

BIGARREN KATEGORÍA

Gainontzekoentzako eta hauen barne, okupazioak oinezko nahiz ibilgailuei eragin bereziren bat eragiten dienean, lehenengo kategoriako kaleen tarifa ezarriko da.

Elementuak kategoría ezberdineko bi bide publikoen edo gehiagoren artean dauden tokietan ezarrita badaude kuota kategoriarik handiena duen bide publikoari dagokiona izango da.

ERANSKIN honetako I. Atalean dauden tarifak eta II. Atalean adierazten diren kaleen sailkapenak osatzen duten jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik Tasen Ordenantza Arautzailea 2016ko abenduaren 21ean onartu zen behin betikoz.

ALKATEA,

IDAZKARIA,